



KULTUR ANIZTASUNA HIZKUNTZAN

Euskara kolonbiar erara

Hirugarren adineko pertsonak zaintzeko eskaera handia da, geroz eta gehiago bizi baikara. Eta zaintzaile horiek, sarri, latinoamerikarrak dira. Kasu askotan, egun osoa elkarrekin pasatzen dute adineko euskaldun zaharrak eta Hego Amerikako laguntzaileak, paisaia linguistiko bitxia osatuz.

Testua eta argazkiak:

MIKEL GARCIA

CHISME-*EI* buruzko telebista saioak ikustea atsegin du Juanita Aldaiak, Hondarribiko Alde Zaharreko bere etxean *chisme* deitzen baitiete txutxumutxuei. 89 urteko emakume honek badaki *aborita* ez dela orain, geroxeago baizik, eta *párese* hitzak ez duela esan nahi geldirik egoteko, zutik jartzeko baizik. Dora Betancourt zaintzaile kolonbiarra duenetik behintzat, hala da bere etxean. Hasieran, kosta egin zitzaien elkar ulertzea, batez ere hondarribiarrari, Juanita Aldaiaren semeek zaintzaileari jakinarazi zioten arte —amari lotsa ematen ziolako zuzenean aitortzea— ez ziola gehiegi konprenitzen.

Orain, ondo moldatzen dira hizkuntzarekin, eta Betancourtek hitz eta esamolde ugari ikasi du euskaraz. *Attona* Joxek —horrela deitzen

dio Dorak Juanitaren senarrari—buruko gaitza du duela lau urte pasatxotik, ahaztu egiten zaio zaintzaileak ez duela euskaraz hitz egiten eta hondarribiera jatorrean mintzatzen zaio. Are gehiago, Joxe Errazkini ez zaio gustatzen Betancourtek bizarra mozterik eta haloetan purrustaka hasten da, euskaraz bereak eta bi esanez; hitz itsusi horiek buruan gorde eta

**Errazkini ez zaio gustatzen
Betancourtek berari
bizarra mozterik eta
purrustaka hasten da.
Euskarazko birao horiek
ere ikasi ditu Betancourtek**

etxeko andreari galdetzen dizkio zaintzaileak. “Hori esan al dizu?”, lotsatu ohi da Juanita Aldaia, eta barrez bukatzen dute biek, botatako madarikazioak argitzen. Biraoak ondo ikasi dituela azaldu digu Betancourtek.

Hori bai, irakasle zorrotza du zaintzaileak: burua ondo daukanean, hitzez gain ahoskera zuzentzen dio Errazkinek, “s-ak eta z-k ez ditugulako Kolonbian ondo bereizten”. Gustura aritzen da Errazkin Betancourtekin maisu lanak egiten, ‘edan’ esan beharrean ‘adan’ esan duela eta halako hitz aldrebestuak barre artean zuzentzen. Jakin-min handiko pertsona da Dora Betancourt, dena galdetzen du, etxeko senar-emaztea solasaldian ari direnean, edota euren

semeekin mintzatzen direnean, belarria jartzen du, eta berba anitzen esanahia eskatzen du ondoren. Bere herrira telefonoz deitzen duenean senideak harritu egiten dira batzuetan, hitz egiteko era aldatu duela-eta.

Azken finean, entzume-na eta mintza-praktikak primeran datozkio Dora Betancourti: hainbeste ordu Aldaia eta Errazkinekin egoteak erraztu egiten dio alaba ulertzea. Izan ere, euskaraz eskolatu du lau urteko alaba, eta hau ere hitzak eta ahoskera zuzentzen hasi zaio dagoeneko. ARGIA bidaltzen diegunean, erreportaje hau itzuliz praktikatu dezatela esan diegu, baina euskara zailegia darabilgula erantzun digu Juanita Aldaiak, berea bestelako euskara dela –gurea baino aberatsagoa, ez dugu dudarik—. Beraz, herriko hizkera eta ukitu kolonbiarra uztartuz jarraituko dute Hondarribiko Alde Zaharreko etxe honetan.

Telenobelen itzultzaile

Desberdina da Martina Zabalaren eta Fernanda Zorrillaren kasua. Erreterian bizi arren, Aranoko baserri batean jaioa da Zabala, eta bertako euskara joria mantentzen du seme-alabekin, baina gaztelania hutsean aritzen da zaintzailearekin. “Ez du euskaraz ikasi nahi izan eta beraz, *castellanoz* behar”, adierazi digu Zabalak irribarre goxoarekin. Landu enpresak jartzen dizkio zaintzaileak eta orain arte, denak hegoalamerikarrak egokitu zaizkio. Zabalaren alabaren hitzetan, amak ez du



Ezkerreko argazkian, Juanita Aldaia, Joxe Errazkin eta Dora Betancourt. Goian, Martina Zabala eta Fernanda Zorrilla.

inoiz arazorik izan eta oso ondo hartu ditu laguntzera etorritakoak, izaera ere halakoxea baitu.

Fernanda Zorrillak (kolonbiarra hau ere) urtebete eman du aranoarrarekin eta aipatu digu oso zaila egiten zaiola hizkuntza, ez duela inoiz interesik jarri ikasteko, ezta etxeko andrea seme-alabekin ari

Zaintzaileak Kolonbiako bizimoduaren berri ematen dio Martina Zabalari eta saltsa, merengea, *ballenatoa*... kantatzen dio belarrira

denean entzuteko ere. Gehienez ‘agur’ esaten du, dendatik ateratzean.

Hartu-eman kulturala, dena den, ezin izan dute saihestu, egun osoa elkarrekin egonda. Nafarroako mugako herria izanik, Aranoko garai bateko kontrabandoaz hitz egiten dio 96 urteko emakumeak, anaiak pilotan jokatzen zueneko istorioak kontatzen dizkio, Espainiatik egin dituen bidaia gogoratzen ditu... Eta zaintzaileak Kolonbiako bizimoduaren eta giroaren berri ematen dio. Ez hori bakarrik, musika bizi-ki atsegin du Fernanda Zorrillak eta Bilboko irratikate latinoa jarri ohi du etxean: “Eta bestela, saltsa, merengea, *ballenato*... Edozer gauza kantatzen diot belarrira, eta dantzan egiten dugu. Berak dio zaharregia dela, baina oraindik dantzan egin dezakeela erantzuten diot nik, eta mugitzen hasten da, nirekin batera”. Bazkalosteko telenobela latinoamerikarrak ulertzen ere, lagundu egiten dio Zorrillak Zabalari.

Telebistako saioez, kaleko kontuez eta azken berriei solas egin ohi dutela argitu digu Martina Zabalak, beti ere gaztelania erabiliz, euskaraz ez zekien praktikantea Aranoko baserrira agertu zenetik pixkanaka ikasi duen *castellanoa* erabiliz. Nonbait, asko galdetu diegu hizkuntzaren inguruan, bisita bukatu eta handik egun batzuetara jakin dugulako ondorengo: atetik irten bezain laster, Zabalak zaintzaileari esan dio euskaraz irakatsi nahi diola. Datorren urtean errepikatu beharko dugu bisita. ■

Babeslea: Arabako Foru Aldundia

euskaraba
arabako euskararen ataria

www.euskaraba.com

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava